


# B

BARREN



# Txapeldunen krosa

Mugerza krosa domekan, Mintxetan

# ARAMBURU



BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO  
GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA  
Bitxi-dendan  
gastatzeko  
500 €-ko balea

Zkia.: 460

Ordezkoa: 3.515 zenb.



2. SARIA  
Bitxi-dendan  
gastatzeko  
500 €-ko balea

Zkia.: 1.379

Ordezkoa: 3.223 zenb.

San Frantzisko, 26 Tel./faxes: 943 74 25 35

## ZOZKETA

# BI LAGUNENTZAKO BIDAIA KANARIETARA ASTEBETERAKO

Zozketa eguna: 2008/12/22 - (notario aurreko zozketa)



correduria de seguros

**URNOBITZA** S.L.

Pedro Migel Urruzuno kalea, 31 behea  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



Zozketan  
**DORLETA  
AROZENA  
ESPOSITO**  
izan da saritua

## Nongoa haiz hi?

Donostiako ospitale batean jaio eta segituan, Altzolako Garaño baserrian hilabete batzuk eman nituen, Elgoibarko Pedro Muguruzako etxea bukatu bitartean. Uda guztiak, jaio nintzenetik, Deban pasatu ditut. Orain, ezkonduz gero, Gasteizen bizi izaten eta lanean.

Norabait joan eta orduan etortzen dira arazoak, “nongoa haiz hi?” galdetzen didatenean.

Elgoibarren bizi nintzenean edonork galdetuta, beti harro, ez kalearen izenagatik baizik eta izanagatik, Avenida Pedro Muguruzakoa, nahiz eta, batzuetan, koadrilakoek beste ezizen bat ipini adarra jotzeko nire hainbeste sentimendu gordetzen dituen etorbide honi. Taberna baten ur botila konkretu bat eskuan izan eta beti harro, “ur hau sortzen deneko herri edo auzokoa nauk”. Euskal Herriko edozein herritatik nenbilenean, parrandan edo ligatzeko asmotan, beti Elgoibarkoa, inongo dudarik gabe. Oporrez edo kostaldeaz hitz egitean, beti Debakoa; askotan lagunak aurpegiratzen zidaten batzuetan bazirudiela Deba gehiago maite nuela Elgoibar baino. Inork kalekume deitzen bazidan, nik segituan mozten nion baserrikoa nintzela esanez, bertara jaio nintzelako. *Glamour* puntu bat nire buruari ematea nahi izanez gero, segituan Donostiakoa. Tourrera betiko lagunekin irtenez gero, harro ikurrina eskuetan, nongoa naizen garbi azalduz. Atzerira irten eta nongoa naizen galdetzean, nik beti lehenengo, *Basque Country*koa; “*What?*” entzun eta azalpen geografiko bat eman ondoren, ezer ulertu gabe jarraituz gero, Spain esan

behar. Emaztea eta umeekin oporretan, atzerira irten gabe, ibiliz gero, “*de Vitoria*” edo, euskalduna bada, “Gasteizkoa”. Ala...Vitoria-Gasteiz esan beharko nuke? Hau da nahaspila!

Azken asteetan, aurrekoak gutxi balira, nire bizilekuen zerrenda honetan, beste izen edo zalantza bat sortu zait. Nongoa naiz? Euskadikoa ala Euskal Herrikoa? Nik oraingoan behintzat garbi daukat. Eta zuek?

Aitor Ibabe



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

.....  
**“Nongoa naiz? Euskadikoa ala Euskal Herrikoa?  
 Nik oraingoan behintzat garbi daukat. Eta zuek?”**

## GABONETAKO ERRETATUAK ETA BIDEOAK **MEDIATEKAN** JARRI DITUGU



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

**Egin  
 klik  
 eta  
 ikusiko  
 duzu**

 **ELGOIBARKO IZARRA**  
 KULTUR ELKARTEA

# GABONAK

## Irudi eta bizipen ugari

A maitu dira Gabonak eta, horrekin batera, oporrak ere bai. Urte berriarekin gabon giroari agur esan diegu, baina guztiz ahaztu baino lehen, errepaso txiki bat egingo diegu Gabonei. BARRENe kamera han eta hemen ibili da irudi hunkigarrienena bila, eta datozen orrialdeetan jaso ditugu.


Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak Santa Klaratik iritsi ziren Elgoibarrera. Umeei ez ezik, San Lazaro egoitzakoei ere opariak eroan zizkieten.

Ume mordo batek hartu zuen parte Autxtxia-maikak antolatutako Olentzeroren kalejiran. Mari Domingik eta Olentzerok eskutitz mordo jaso zituzten. Ekarri ote dzkiete Elgoibar-ko umei eskatutako opari guztiak? Baietz!





Kirol Federatuaren sariak banatu zituzten abenduan. Argazkian saridunak.



Aurten ere sekulako arrakasta izan du taloak Gabon Zahar feria egunean.



Katxo eta Txomin Mujikari omenaldia egin zieten Bandako zuzendari eta zuzendari-orde izateagatik



Korneev errusiarrek seigarren aldiz irabazi du Nazioarteko Xake Txapelketa.



Astoak, txerriak, ardiak eta beste hanibat animalia ikusi ahal izan genituen ferian.



AHTren kontrako taldeak kale antzerkia egin zuen Gabon Zahar feria egunean.



Urteko 'belenista' izendatu dute Elgojaitza. Hilaren 18ra arte egongo da ikusgai.



Elgoibarko Izarrak 'Abendu' tzaren inguruko makina ba jaialdiaren 25. urteurrenaren



Fruta eta barazki postuak Gabon Zahar ferian.



Bihurrik aizkora erakustaldia eskaini zuen.



Javier Agirregomezkortak irabazi du Morkaiko



Taloak ez dauka adinik.



Urteko gaztarik onena Ricardo Ramirorena izan zen (Eulate, Nafarroa).

Ilusioz beterik joan ziren umeak





...a bertsotan' antolatu zuen. Bertsolari-  
...t ekien izan zen, Gabonetako bertso  
...harira.



Produktuak dastatu eta erosteko aukera izan zuten feriera  
gerturatu zirenek.



Eusko Label markako 1.200 arkume pintxo inguru  
banatu zituzten Elgoibar Ikastolaren txosnan.



...en argazki lehiaketa.



180 umek hartu zuten parte hockey txapelketan.



Hotzari aurre egiteko, txistorra taloa!



...Dlentzerori eskutitza ematera.



Argazkia: Aitor

Parrokian kontzertua eman zuten Musika eskolako ikasleek.



Askok urteari korrika agur esan zioten. Urgazik eskerrak eman nahi dizkie Gurutze  
Gorriari eta Euskadiko Kutzari, San Silvestre antolatzen laguntzeagatik.



Saharako umeentzako diru bilketa egin  
zuten Elgoibarko gaztetxoek.



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Nork eragin du krisi ekonomikoa?**

Eredu neoliberalak goia jo du; meta-keta kapitalistaren sistemaren oraingo krisiaren eragileak bi izan dira: bata Gobernuak askatasun osoa ematea kapital-finantzari, eta, bestea, politika publikoaren bidez errentak kapital pribatuaren aldera pasatzea. Kapital inproduktiboa kontzentratu egin da, ahalik eta etekin handiena ahalik eta denbora laburrenean, eta horrek prozesu espekulatiiboak ekarri ditu etengabe, hala nola, 90ean burbuila teknologikoa eta orain arte iraun duen burbuila inmobiliarioa. Orain mehatxua lehengaiaren merkaturantz doa, horrek dakarren arriskuarekin: elikagaien, erregaien, metal eta mineralen prezioaren kontrola espekulatuzaileen esku geratzea. Banku Mundiala, FMI (Nazioarteko Moneta Fondoa) eta multinazionalak definitutako politika neoliberalak kapital inproduktiboaren zerbitzura jarri dira. Horrek finantza-merkatua eta ekonomia produktiboaren arteko desonexioa eragin du. Kreditu errazak, kontsumo neurrigabeak eta espekulazio inmobiliarioaren ereduak desoreka handia eragin dute. 162.000 euroko hipoteka duen edozein familiak, hilean lehen baino 64 euro garestiago edo urtean 768 euro garestiago ordaindu behar du hartutako mailegua,

beraz, kontsumoa moteldu behar du.

Panorama ekonomiko honek bi egoera estruktural erakusten ditu: Neoliberalismoaren porrota eta hazkunde ereduaren eutsiezina. Eredu honetan enpresen etekinak neurrigabeak izan dira, langileen soldata-errentek pisua galdu dute, eta, gero eta etekin txikiagoekin sortutako ondasunetik, baita lan-baldintza aldetik ere, 100 hildako baino gehiago izan dira aurten –Europako tasarik handiena–. Egoera honetan, aldi baterako enplegua dutenak, batik bat gazteak, emakumeak eta inmigranteak dira kalte handiena jasaten ari direnak. Gobernu guztiek, bai Zentralak, bai Gasteizkoak, diru publikoa injektatzen dute kapital pribatuan. Horrela, inmobiliariaren eta azpiegitura finantzaren bidez, kapital pribatuaren eta enpresen etekinen alde egiten dute, beraz espekulazioa gure diruarekin. Errezeta zaharrak darabiltzate merkatuak aurrera egingo duelakoan. Era berean langileak prestatzen dituzte kalteak euren gain har ditzaten.

1. Langileak kontratatzea eta kaleratzea gero eta merkeago
2. Soldaten moderazioa
3. Inbertsioak obra publikoetan
4. Laguntza fiskalak eta diru-laguntza enpresa pribatuari

5. Patrimonio handiei eta enpresari zergak jaistea
  6. Enpresari kotizazioak jaistea
  7. Politika sozialeko aurrekontuak murriztea
  8. Liberalizazio publikoarekin jarraitzea eta pribatizazio berriak sustatzea
- Horren aurrean beharrezkoa da errei-bindikazioak planteatzea, lehentasun hauekin:

1. Lanpostua defendatzea eta lan-baldintzak hobetzea
  2. Prekarietatearen eta lan-diskriminazioaren kontra borrokatzea
  3. Lana banatzea eta kalitatezko enplegu egonkorra sortzea
  4. Aberastasuna hobeto banatuko duten zerga eta aurrekontu-politikak bultzatzea
  5. Politika ekonomiko eta fiskaletan langileek parte hartzea
  6. Ekonomian esku-hartzeko eta berau arautzeko, sektore publikoa indartzea
- Hau da, langile-klasearen bizi-baldintzak hobetzea eta bermatzea. Hori guztia lortzeko, herriak dituen sektore guztiak aktibatu eta beste eredu alternatibo batekin aurrea hartu behar diogu kapitalak ezarritako eredu zaharkituari.

LAB sindikatua ☪

ESKERTZA



**PILAR ARREGI GARATE**

2008ko abenduaren 29an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



**Barren**

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Uhanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agireazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaiz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Oihana  
Tarragual

N o l a  
begiratu dio-  
zu 2009ari, Ibai?  
Ilusioz, errezeloz  
ala “beste urte bat”  
esan duzu?

Ez dut betikoa errepikatu nahi:

kiroldegian hasiko naiz, erretzeari utziko diot... bla, bla, bla.

Nik urte berriari konfiantza eskatu diot.

Behin, aitak, semea etxetik zihoala eta hauxe esan zion: “Seme, eseri zaitez, aholkutxo batzuk emango dizkizut eta”. Semea esertzera zihoanean, aitak aulkia kendu eta semea lurrera erori zen. Aitak orduan “Zure aitaz ere fida ez zaitezten”.

Aita hark bazekien bizitzaz zerbait, ez da erraza gaur egun, edo-zertan edo edonorengan konfidantza izatea.

Despido ugari, ekonomiarekiko konfiantza: zero.

Martxoko hauteskundeak, prekanpainia, hitz politak... Politikoen-  
gan konfiantza: zero.

Beste emakume bat hil dute, justizian konfiantza: zero.

## “Nik urte berriari konfiantza eskatu diot”

Geure buruarengan konfiantza izatearekin konformatu beharko dugu eta ez da gutxi. Nolakoak garen onartu (gauza on eta txarrekin) eta gure ekintzen jabe izan (eta ez besteei erantzukizunak eskatzen ibili).

Konfiantzak seguritatea, askatasuna, baikortasuna eta poza emango digu. Konfiantza ezak, berriz, beldurra eta ezinegona.

Aldizkari batean irakurri nuen behin, konfiantza ez dela gauza guztiei erantzuna topatzea, galdera guztien nondik norakoa jakitea baizik.

Zertan duzu zuk konfiantza, Ibai?



Ibai  
Portu

Oihana:

Agian konformista samarra iruditu daiteke, baina nik 2009. urteari eskatzen diodana zera da: nagoen bezala gera nadila.

Honek ez du esan nahi ilusiorik ez dudunik, aurrera egiteko gogorik ez dudunik; ezta konformista naizenik ere. Aitzitik, barne-ilusioak bideratzeko zubiarri eutsi, maitasunaren sugarren txinpartak itzal ez daitezzen zaindu, esfortzuaren bidez gauzatutako lanaz gozatu eta pertsonen intentzio onarengan konfiantza izaten jarraitu nahi dudala adierazi nahi dut, besterik gabe.

## “Nik 2009. urteari eskatzen diodana zera da: nagoen bezala gera nadila”

Eta, neuk ere, zure antzera, ez dut konfiantza gehiegi justizian, politikariengan eta lan munduko arazoak azkar konponduko direla dioten horiengan. Baina badut konfidantza maite ditudanak eta nautenak hor egongo direla; naturarengan erreparatzen duten horiek begiak irekiko dituztela; nire ilusio eta gogoek huts egingo ez didatela; eta, bukatzeko, letra txikiagoz idatzita, Reala primerara igoko delako ustearengan ere ipinita dut nire konfidantza.

Espero dut, Oihana, zuk ere nigan konfiantza izango duzula eta zuek ere, irakurleok, behintzat pazientzia eta umore sena izango duzuela datorren urte honi aurre egiteko. Zuhaitz sakratuen indarrak, agur.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## Iaz baino %1,5 txikiagoa izango da aurten Udalaren aurrekontua

16.651.531 euroko aurrekontua izango da guztira, eta inbertsioei erango die, batez ere

**E**AJ-PNV, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dituzte aurten Udal aurrekontuak. Iaz 17.000.000 eurotik gora gestionatu zituen Udalak, baina krisialdiak eragina izan du udaletxean ere, eta ondorioz, iaz baino %1,5 txikiagoa izango da aurten Udal aurrekontua.

Guztira 16.651.531 euroko aurrekontua izango du, eta 1.574.955 euroko mailegua eskatuko du aurrekontu hori orekatzeko. EB-Aralar eta PPK kontra bozkatu zuten.

PPko Francisco Javier Nuñezek bere postura adierazi du prentsa ohar baten bidez. Bere esanetan, Udalak dirua gaizki erabiltzen du, publizitate eta azterketetan diru asko gastatuz, baina herritarrentzako zerbitzu eta hobekuntzarik ez da aurreikusten. Bere ustez, Udalak 95.000 euro gastatuko ditu publizitatean, eta 300.000 eurotik gora ikerketetan, eta horri "gehiegi" deritzo. Horrez gain, PSE-EE alderdiaren jarrera kritikatu zuen aurrekontuen alde bozkaezagatik.



### Inbertsioak %25 gutxiago

Aurrekontua murrizteak inbertsioei erango die, batez ere, eta iazkoaren alderatuz, %25 gutxiago erabiliko du Udalak inbertsioetarako. Guztira, 3.778.200 euro izango ditu inbertsioen atalak, eta lanik garrantzitsuena Osasun Zentro ingurutik Kiroldagiraino jarriko den igogailua izango da. 500.000 euro erabiliko dituzte horretarako. Gainera, Antonio Arrillaga eta Ubitarte kalea urbanizatuko dituzte (350.000 eu-

ro), Mintxetan paddel pistak jarriko dira (248.000 euro) eta Altzolan hobekuntzak egingo dituzte (100.000 euro).

### Pilar Ikastetxea

Bestalde, Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Pilar ikastetxea ongizate gaietarako azpiegitura moduan erabiltzeko lankidetzeta hitzarmena sinatu dute. Osoko Bilkurak hitzarmen hori onartu zuen Aralar alderdiaren abstentzioarekin.

## Mikel Ibañez presoaren aldeko plataforma sortu dute



Hainbat herritarrek Mikelen Lagunak izeneko taldea sortu dute. Taldearen helburua Mikel Ibañez preso elgoibartarrari elkartasuna adieraztea da. Mikel Ibañez gaixorik dago, minbiziak jota, eta Elgoibarko Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak askatzeko eskatzen du. Gabon Zahar feria egunean 75 lagun inguruk hartu zuten parte Ibañezen aldeko giza katean, eta Haundi futbol taldeko jokalariek ere, ekimenarekin bat egin zuten Lagun Onak taldearen kontrako partiduan.

## Lekua **Eguneko Zentroa**



Aurten egingo dituzte Egune-ko Zentroa handitzeko obrak. Hamabost lagun egoten dira egunero bertan, baina eskaera handia dago. Jubilatuen egoitzari zati bat kenduko diote, eta beste bost lagun hartzeko lekua egongo da. Goizeko 10:00etatik 18:00etara egoten dira nagusiak eguneko zentroan, eta, besteak beste, eskulanak egiten dituzte. Argazkian ikusi daitezke lan batzuk.

## Zenbakia **25**

Mendarok 25 urte bete zituen abenduan udalerria eratu zenetik. 1977ko irailaren 9an hasi zen hamabost mendaroez osatutako talde bat herria sortzeko ekimenean, eta sei urte geroago lortu zuten euren nahia. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1983ko uztailaren 3an onartu zuten Mendaroko udalerria, eta abenduaren 30ean sortu zen lehenengo Udala. Orduetik, Juan Loiola, Anton Zubiaurre, Txomin Zulaika, Esti Gonzalez eta Irune Berasaluze izan dira Mendaroko alkateak.

## Irudia **IMHko museoaren X. urteurrena**

Abenduaren 18an egin zuten IMHko museoaren X. urteurrenako ekitaldi ofiziala. Bertan, museoaren hamar urteko ibilbidean bidelagun izan diren pertsona eta erakundeei esker ona eman zieten. Urteurrenako ospakizun horretan gonbidatu berezi eta garrantzitsuak izan ziren. Besteak beste, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Alfredo Etxebarria alkatea eta Jose Ramon Guridi Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko diputatua. Museoko zuzendari eta presidentearekin batera, Danobat, AFM eta beste hainbat erakundetako ordezkariak izan ziren.



## **Ipuin lehiaketa**

Aurten ere, aitita-amama eta biloben arteko ipuin lehiaketa jarri du martxan Debegeesak. Zaharren eta umeen arteko zubiak sendotzea eta balore eta ezagutzen transmisioan oinarritutako harremanak sustatzea ditu helburutzat lehiaketa horrek. Lanak entregatzeko azken eguna urtarilaren 19a izango da. Informazio gehiago, 943 820 110 telefonoan.

## **Santo Tomas eguna Altzolan**

Zubibai elkarteak antolatuta, Santo Tomas eguna ospatu zuten Altzolan abenduaren 21ean. 12 kilo txistorra banatu zituzten guztira, eta eguna giro bikainean pasatu zuten. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiote Domiko harategiari eta Altzolako Urak enpresari.



## **Miski elkartearen zozketa**

Miski elkarteak zozketatutako otarraren irabazlea M<sup>a</sup> Paz izan da, 869 zenbakidun errifarekin. Argazkian ikusi dezakegu Gemma Agirregomezkortarekin. Zorionak!



# GUREAN BAIko OTARRAREN ZENBAKI SARITUA 4.711 IZAN DA

Irabazleak astebeteko epea dauka saria jasotzeko. Ordezko zenbakia 5.043 da.



**P**oltsikoko 9.300 egutegi banatu dituzte GUREAN BAI-Merkataritza proiektuan parte hartzen duten 186 taberna eta dendatan. Bezeroen artean abenduan zehar banatu zituzten 2009ko egutegiok. Elgoibarko hainbat tabernen erretratu zaharrek in egin dituzte aurten. Saritutako zenbakia duenak euskarazko produktu sorta jasoko du: *Elhuyar* hiztegi entziklopedikoa, Gotzon Garteren *Atsotitzak*, *Krokoren etxea* ipuina, Sehaskaren egutegia, 2009ko agenda, Kepa Junkeraren *Etxea* diskoa eta *Elgoibar koloretan* mahai-jokoa. Saria eskuratzeko GUREAN BAIko teknikariarekin jarri behar da harremanetan (943 741 746, Amaia). GUREAN BAI ekimenak barkamena eskatu nahi du, egutegiko akatsagatik, izan ere, iraila gaizki dator-eta.

## Ostalariekin lanean

2003an dendariekin lanean hasi baziren ere, GUREAN BAI proiektuko teknikariak adierazi digunez, orain bete-betean dihardute ostalariekin. Euskaltegien matrikulazio kanpainarekin batera, 184.800 aho-zapi banatu zituzten 37 taberna eta jatetxetan irailan, *Ahora!* lempaean. Horrekin, ez dakitenek orain euskara ikasteko momentu aproposa dela adierazi nahi zuen batetik, eta bestetik, euskaldunak erabiltzera animatzea, euskara ahora eramatea alegia. Horrexegatik ostalarientzako ikastaroa antolatatu zuten. 60 orduko ikastaroaren bidez, bezeroekin euskaraz komunikatu ahal izateko oinarriko trebakuntza lortu nahi da, zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko aukera izan dezaten.

Ikastaroan izena hamahiru lagunek eman bazuten ere, zortzi ostalariekin abiatu zen taldea. Ikastaroan parte hartu duen ostalari bat elkarrizketatu dugu: El Gautxoko Andres Dorta.



*“Ikasitakoa praktikan jartzen saiatzen naiz eta berezok euskararekin laguntzen didate”*

**ANDRES DORTA**

Euskarazko ikastaroan parte hartu duen ostalari (El Gautxo)



Andres Dorta argentinarra da eta zazpi urte daramatza Elgoibarren bizi izaten. Gautxo tabernako nagusia da, eta Gurean Bai-ostalaritzak ostalarientzat antolatutako euskara ikastaroan hartu du parte.

### Zergatik erabaki zenuen ikastaroan izena ematea?

Orain dela zazpi urtetik Elgoibarren bizi naizelako eta nire seme-alabek euskaraz hitz egiten dutelako. Gainera, Euskal Herrian bizi izanda, integratzeko, euskara jakitea beharrezkoa dela iruditzen zait. Euskal Herria txikia da, eta bertan bakarrik balio du euskaraz, baina edozein hizkuntza jakitea da ona. Eta hemen bizi izanda, euskara jakitea komenigarria da. Gainera, bertan bizi izaten jarraitzeko asmoa daukat: Argentinara opo-

rretan bakarrik joango naiz, eta horregatik erabaki nuen ikastaroan izena ematea.

### Etikastaroan ikasitakoa erabiltzen duzu orain?

Bezeroekin eta seme-alabekin ikasi dudana praktikan jartzen saiatzen naiz. Zaila da euskara, baina bezeroek eurek laguntzen didate, eta alabak ere bai. Egia esan, elgoibartarrak oso jatorrak dira. Tratu ona daukat eurekin.

### Asko kostatu zaizu euskara ikastea?

Gaztelera da nire ama-hizkuntza, eta euskara oso ezberdina da. Baina pixkanaka-pixkanaka banoa praktikatzen eta esaldi osoak ez, baina hitz solteak behintzat esan ditzaket. Hamabi urteko alaba daukat, eta hark lagunduko dit.



Trenaren zain egoteko lokala itxita daukate estazioan  
“Lokal ederra dago estazioan, baina itxita egoten da.

Trenaren zain egon behar dutenek andenean itxaron behar dute. Urte sasoi honetan haize hotza eta euri asko egiten du eta lokal barruan hobeto egon daiteke: jarrita, haizerik eta euririk gabe. Orain dela egun batzuk andrazko bi hotzak akabatu beharrean ikusi nituen. Hurrengoan neu izan naiteke edo zu-zeu. Eusko-treneko erabiltzaileek ez dute tratu hori merezi. Ez dago eskubiderik”.



Elgoibar Ikastolakoek eskerrak eman nahi dizkiete txosnan parte hartu zuten guztiei: “Aurten ere jende asko ibili da Gabon Zahar feria egunean Ikastolako txosnan eta eskerrak eman nahi dizkiegu guregana hurbildu diren guztiei. Baita ere, txosnan lanean aritu ziren guztiei, mila esker. Datorren urtean ere elkar ikustea espero dugu”.

Elgoibar Ikastolakoek eskerrak eman nahi dizkiete txosnan parte hartu zuten guztiei: “Aurten ere jende asko ibili da Gabon Zahar feria egunean Ikastolako txosnan eta eskerrak eman nahi dizkiegu guregana hurbildu diren guztiei. Baita ere, txosnan lanean aritu ziren guztiei, mila esker. Datorren urtean ere elkar ikustea espero dugu”.

ESKERTZA



## BENITO IRIONDO ELORZA

2008ko abenduaren 28an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



## M<sup>a</sup> ISABEL ROTETA APAOLAZA

*Mendaron leikame eta maistra izandakoa.*

Bere aldeko meza Mendaroko Garagartzako elizan ospatuko da, urtarrilak 1, domeka, eguerdiko 11:00etan. Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



ESKERTZA



## JOSEFA AGOTE ARAMBERRI

2008ko abenduaren 26an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## San Antonetako 'Koloretan' txapelketan izena emateko epea hilaren 14ra arte egongo da zabalik

Hamasei urtetik gorakoek hartu dezakete parte, eta 950 euro banatuko dira saritan

**E**lgoibarko Izarra kultur elkarteak, Udalaren laguntzaz, *Koloretan* txapelketa antolatu du hilaren 18rako. Hamasei urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango du *Elgoibar koloretan* mahai-jokoarekin norgehiagokan.

Banaka zein binaka jokatzeko aukera izango da. Dena dela, izenematea eguaztenean amaituko da, hilaren 14an. Horretarako Elgoibarko Izarraren lokaletara jo (Ubitarte, 4) edo deitu 943 741 426 zenbakira. Bestela, [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) helbidera ere idatzi daiteke.

### Sari mordoia

950 euro banatuko dira saritan. Irabazleak 500 euro eta txapela eskuratuko ditu; bigarrenak, 300; eta hirugarrenak, 150 euro.



Entrenatzeko gogoia duenak hemen erosi dezake mahai-jokoa, oraindik eskuratu ez badu: BARRENeN, Elgoibarko Izarran, Ize liburu-dendan eta Pitxintxun.

Mahai-jokoak ondo pasatzeko eta Elgoibar hobeto ezagutzeko balio du. 900 galdera-erantzunen bidez, partxisa eta tribiala uztartzen ditu.

## 'El jefe de todo esto' filmaren antzerkiko bertsioa taularatuko du Ados Teatroak



Ados Teatroak *El jefe de todo esto* komedia eskainiko du Herriko Antzokian datoren barixakuan, hilaren 16an. Antzezlanaren 22:15etik aurrera ikusi ahal izango da. Lars von Trier zinegilearen film ezaguna moldatu eta antzezlan bihurtu zuen Garbi Losadak. Berak zuzenduta, aktore ezagunak izango dira taula gainean: Oscar Terol, Koldo Losada, Elena Irureta, Mila Espiga, Josean Bengoetxea eta Carlos Nguema.

### Filatelia erakusketa hilaren 17tik 25era

Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak Gure-Bide txirindularitza elkarte eta Zubi Ondo xake elkarte omenduko ditu. Izan ere, bi taldeak 50 urte egingo dituzte aurten. Hori dela eta, zigilu marka berezia martxan jarriko dute hilaren 17 eta 18an. Urtarrilaren 17tik 25era arte bisitatu ahal izango da seilu erakusketa, Kultur Etxean.

### Urtarrilaren 18an itzuliko da Zirko Ttipia Elgoibarrera

Zirko Ttipia taldeak *Txalo Zirkua* antzezlan eskainiko du urtarrilaren 18an. Emanaldia Herriko Antzokian izango da, 16:30etik aurrera. Pailazoen publikoari laguntza eskatu eta kasting bitxia jarriko dute martxan. Azken batean, umeak protagonista bihurtuko ditu: musika jotzeko edota dantza egiteko eskatuko diete.

# Atxotegik eta Loiolak San Anton Pilota Txapelketako finala jokatuko dute

Bigarren bikotea gaurko partidan erabakiko da

Agunak taldeko Atxotegi-Loiola bikoteak San Anton pilota txapelketako final handia jokatuko du urtarrilaren 16an. Baina oraindik erabakitzeke dago norgehiagokan parte hartuko duen bigarren bikotea. Andreuk eta Jauregik finale-rako txartela eskuratu nahi izanez gero, duten guztia eman beharko dute gaur iluntzean, Yoldi eta Larrinagaren aurka.

Urtea hastearekin batera, urtarrilaren 2an, lortu zuten finalerako pasea Atxotegik eta Loiolak. Rico eta Otxotorenaren aurka 21-22ko emaitzarekin irabazi zuten emozio handiko partidan. Izan ere, 21-20 galtzen joanda, bi tanto jarraian egitea lortu zuten Elgoibarko taldeko bi pilotariek.

San Anton pilota txapelketa antolatzen duten hamazortzigarren aldia da oraingoa, eta Elgoibarko frontoitik izen handiko pilotariak pasa dira, besteak beste, Eugi, Olai-zola anaiak, Irujo eta Laskurain. Baina Lagunak taldekoek pilotalekuaren egoera txarra salatu nahi izan dute. Itoginak dau-de lehenengo eta seigarren koadroetan,



eta koskak ere bai. Herriko frontoiak berri-tu beharra duela begi bistakoa dela uste dute.

## San Migeleko txapelketa

Bestalde, azaroan hasi eta abenduaren 20an amaitu zen San Migeleko pilota txapelketan Xabi Arrillagak eta Andoni Egañak mendean hartu zituzten Gontzal eta Basueta 22-18 emaitzarekin. Emozioz betetako finala izan zen, Elgoibarko eta Mendaroko bikotea 15-7 galtzen joan zelako, baina 18ra berdintzea lortu zuten, eta bertan laga zituzten Gontzal eta Basueta.

## CD Elgoibarren zozketako zenbakiak atera dituzte



CD Elgoibarren zozketako lehen sarian ateratako zenbaki saria 3.850 izan da, eta ordezkoa 13.519. Bigarren saria 24.981 zenbakiak lortu du, eta ordezkoa 11.066 irten da.

## La Union elkarteak bi batzarretarako deialdia egin du

La Union ehiza eta arrantza elkarteak bi batzarretan parte hartzeko deia egin du bazkideen artean. Urtarrilaren 13an, martitzenean, eta 15ean, eguenean, egingo dituzte batzarrok, elkarte- bertan. Martitzenekoan kirolaren gainean hitz egiteko izango da. Eguenekoan, oster, lokalaren inguruan erabakiak hartuko dituztela jakinarazi du zuzendaritza batzordeak. Bi deialdi egin dituzte batzar bakoitzerako: 21:00etan lehena, eta 21:30ean bigarrena.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Zamudio 2 – Elgoibar 0 (Haundi)  
 Elgoibar 6 – Anaitasuna 0 (Erreg.)  
 Elgoibar 3 – Hondarribia 0 (Jub.)  
 Elgoibar 2 – Touring 1 (Kad.)  
 Elgoibar 0 – Aloña Mendi 2 (Inf.)  
 Sport. Herrera 1 – Elgoibar 3 (Tx.)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 4 – Comodon 4 (Nazional B)  
 Elgoibar 1 – Asador Azitain 4 (Jub.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 10  
 15:45 Kenci – Orioko tabernak (Nazional B)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 10  
 10:30 Elgoibar – Ordizia (Tx.)  
 16:30 Elgoibar – Baskonia (Haundi)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 10  
 09:00 Ikus – Jauja (Kad. neska)  
 10:15 Pneumax – Urola (Kad. mut.)  
 11:30 Alcorta – Tolosa (Sen. mut.)  
 17:30 IMH – Usurbil (Kad. neska)  
 19:00 Cometel – Usurbil (Jub. neska)

### SASKIBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 10  
 13:30 Ambolo – Lizeotarrak (Inf. neska)  
 Domekia, 11  
 12:00 Gabi – C.D. Internacional (Sen. mut.)

## IDARRAGA SARIAK

### HAUNDIKO JOKALARI ONENAK

1 Larrea (43 puntu)  
 2 Hodei (41 puntu)  
 3 Loren (25 puntu)  
 4 Kerman (24 puntu)

## Ordutegi berria Olaizaga kiroldegian

Olaizaga kiroldegiak ordutegi berria edukiko du aste honetatik aurrera, domeketan. Jai egunean kirola egin nahi dutenek 9:00etatik 13:00etara edukiko dute aukera.

# GIRO ONAREN KROSA



*Mammo Wolde, Fermin Arrese, Abebe Bikila eta Tegarine Marian kenyarrak Elgoibarko Mugerza Krosean.*

**Nazioarteko Mugerza Krosa etzi egingo dute, domekan. 10:00etan hasita, munduko lasterkari onenatarikoak ikusi ahal izango dira Mintxetan. Aurten, gainera, Mausitxa txarangak girotuko du eguna. 10:00etan hasita Txarriduna paratik Mintxetara arte kalejira egingo du, eta, gero, proban zehar ere joko dute musikariek.**

**Edurne Burgaña**

**D**omekan, urtarrilaren 11an, 10:00etan hasita jokatu da Nazioarteko Mugerza Krosa. Guztia prest dute Mintxeta Atletismo Taldekoek, eta, urtero bezala, munduko antxintxikari onenak ikusi ahal izango dira Elgoibarren. Eta antolatzaileek herritarrei kro-sean parte hartzeko deia egin diete: “Aurten jende asko joatea nahiko genuke, urtero egoten dira 4.000 inguru, baina gazteak etortzea nahiko genuke. Tradizioa duen ekintza da krosa, eta ezin da galdu”.

Aurten, Txarriduna parean jarriko dute tal-kila, eta sarrera ordaintzerakoan, furgoneta batzuk egongo dira, Mintxetara igo ahal izateko. 10:00etan hasiko da krosa, eta furgoneta zerbitzua 9:00ak aldean hasiko da. Autoentzako itxita egongo denez bidea, erosotasunagatik bada ere, Mintxetara joan nahi dutenei furgonetan joateko eskatu diete antolatzaileek.

## Tradizioa duen ekintza da Mugerza krosa, eta ezin da galdu

### Hasieran, galdu samar

2002 urtean hartu zuen antolakuntzaren testigua Mintxeta Atletismo Taldeak, eta antolatze lanetan jarduten du Zigor Diezek. Ego-Toki elkarteak hainbeste urtetan egindako lanak jarraipena eduki ahal izateko, Elgoibarko Udalak Mintxeta Atletismo Taldeari proposatu zion antolatze lanak hartzeko.

Orduko zuzendaritzak lan handia zela ikusi zuen, baina aurrerapausoa ematea erabaki zuten, eta zortzi pertsonaz osatutako taldea eratu zuten. Anton Azpiazu hasi zen ko-

ordinatzaile, eta lau urte egin ondoren, Zigorrek jarraitu zuen. “Atletismoarenganako gus-tua nuen neuk ere, eta ahal izanez gero, krosa antolatzen zuen taldean egon nahi nuen”.

Lehenengo momentuak oso gogorrak izan ziren, ez zekitelako krosa antolatzen nondik hasi. Gainera, aurrekontua oso handia izaten denez, diru asko behar zen, eta diru hori nonbait topatu behar. Anton Azpiazuren lehenegusinarekin senarrak lagundu zien, Antonio Serranok. Atletia izan zen, eta enpresa bat dauka Madrilan. Berarengana joan ziren Mintxetakoak, krosa antolatzeko laguntza eske, eta kontratazio aldetik eurek laguntzen dute.

### Antolatze lan handia

Madrilgo enpresa horrek bere atletak ditu eta horiek, normalean, etortzen dira, hogeita hamar inguru. Zein atleta ekarri nahi dituzten aurrez jakiten dute, baina batzuetan ezin iza-



ten dira ekarri. Hala ere, aurten errekorra egingo dutela dio Zigorrek: "Atleta asko etorriko dira: 800 inguru".

Baina krisiak alor guztietan jotzen du, eta krosean ere igarri dute. "Aurten asko ez dugu nabaritu, baina datozen urteetan zailtasun handiagoak edukiko ditugu, seguru. Aurtengo kroserako laguntza batzuk itxita genituen aurrez, eta ez dira atzera bota. Baina hurrengo urteetan auskalo zer gertatuko den".

Egun bakar bat irauten duen kroserako, lan handia egin behar da aurrez, eta buruko min asko jasan. "Baina merezi du, bestela, ez ginatke hemen egongo", dio Zigorrek.

Krosari esker Elgoibarko izena hemendik kanpo zabaltzen ari da. Kanpokoak etorri eta edukitzen duten harrera onari esker, errepikatu nahi izaten dute. Ahoz aho zabaltzen da fama, eta urtetik urtera jende berri gehiago etortzen da.

### Krosaren sorrera

Juan Mugerza Krosa 1943 urtean hasi zen eta lehen irabazlea Prudencio Aierra izan zen. Garai hartan CD Elgoibarrek antolatzen zuen eta 1949 urtera arte San Bartolome Jaietan egiten zuten, herriko kaleetan. Handik bi urtera, 1951an, Gipuzkoako krosetako egutegian sartu zuten, eta, ondorioz, Lerungo zirkuitura



pasa zuten. 1960 urtean Ego Toki elkar-teak hartu zuen antolakuntzaren ardura eta handik hiru urtera, 1963an, Mugerza krosa nazioarteko lasterketa bihurtu zen.

Urte horretan, Gipuzkoako krosaren egutegiaren barruan, Donostiako krosa domeka batean jokatzeko den, eta astebete lehenago Elgoibarkoa. Donostiakora hiru atleta garrantzitsu gonbidatu zituzten: Etiopiako bi, Mamo Wolde, eta Tegarine Marian; eta Argentinako bat, Oswaldo Suarez. Etiopiakoak ezezagunak ziren. Suarez Hego Amerikako txapelduna zen 5.000 metroan, eta Sao Paoloko San Silvestre lasterketa garrantzitsua hiru bider irabazia zuen. Beraz, Elgoibartik eskatu zuten ea atleta horiek parte hartu zezaketen herrian.

Tirabirak egon ziren: donostiarrek ez zuten nahi Elgoibarrera etortzerik, hemen marka onik lortzen ez bazuten horrek eduki zezaketen eraginagatik. Diruak ere eragina eduki zuen, eta, halako batean, Etiopiako bi etortzea erabaki zuten: barixaku batean etorri ziren eta herrian ikusmin handia sortu zuten. Elgoibarren bertan egin zuten lo, eta bertako giroarekin txundituta geratu ziren: sarre-ra guztiak saldu ziren lasterketa egunean. Gustura geratu ziren antza, hurrengo urtean ere Wolde eta Marian bueltatu egin baitziren, eta hirugarren batekin gainera, Abebe Bikilarekin.



*Ekzerrean, iazko irabazlea, aurten ere krosean parte hartuko duen Leonard Komon; eskuman, iaz parte hartutako neska batzuk.*

## HAMASEI URTEKO MUTIL AUSARTA

1916. urteko urtarrilaren 6an, Juan Mugerzak oraindik gaztea zela, Donostiako Krosean parte hartu zuen. Hamasei urte zituen, eta bere izena ezaguna egiten ari zen antxintxikarien artean. Izan ere, aurreko urtean, Espainiako txapelduna izan zen 1.500 eta 5.000 metroan.

Probetan parte hartzen hasi berria zen Mugerza, eta 1917. urteko apirilean Gipuzkoara etorri zen Kataluniako talde bat, bertako taldearen aurka aritzeko. Tartean, Espainian mendian zehar bi bider txapelduna izandako Pedro Prat. Mugerza harengana gerturatu eta galdetu zion: “Zu zara Prat, antxintxikari garaiezina?”.

Pratek zorrotik bere argazkiaz egindako postala atera zuen, eta *Espainiako Txapelduna* jartzen zuen. Mugerzak, erantzun zion: “Nik ez daukat argazkirik, momentuz, baina elkarrekin lasterka egingo dugun lehenengo aldian irabaziko dizut eta nire argazki bat oparituko dizut, idatzita eroango duena: ‘Juanito Mugerza, Espainiako txapelduna’”.

Gazte baten errespetu falta ematen zuen, baina Mugerzak emandako hitza bete egin zuen, Donostiako lasterketan bi aldiz izan zen Prat baino azkarragoa, eta eskuz idatzitako txartel inprobisatu bat oparitu zion.



*Juan Mugerza elgoibartarra gaztetatik nabarmendu zen antxintxikarien artean.*

## Harrera berezia

1963tik 2002ra arte antolatu du krosa Ego-Toki elkarteak. Felix Bergua 1965 urtean hasi zen antolatzaile lanetan, eta Fermin Arrese 1947 urtean hasi zen. Biak Gipuzkoako Federazioko epaileak ere badiara. Urteotako aldaketa nabarmenena zirkuitua izan dela diote elkarteko bi kideek.

Lehenengo urteetan herriko kaleetan egin zen krosa, eta, gainera, udan egiten zen. “Krosa neguko kontua da, horregatik

sartu ginen krosaren egutegian, eta orduan herriko zirkuitura pasa ginen”, dio Arresek.

Orain dela urte asko hasi ziren Mugerza krosa antolatzen, eta behin bakarrik geratu da bertan behera. 1981 urtean, elurte baten ondorioz, ezin izan zuten lasterketa egin: ordurako, Elgoibarren ziren zazpi herrialdeetatik etorritako hainbat atleta, eta pena handiz, lasterka egin gabe geratu behar izan zuten.

Izen handia eduki du Mugerza Krosak, eta gaur egun ere herrialde askotako atletak ikusten dira Elgoibarren saltaka. Baina bai Ego-Toki elkartekoek eta baita Mintxeta Atletismo taldekoek ere, gauza bera nabarmendu nahi izan dute: atletei herrian ematen zaien harrera. Krosaren aurreko egunean udaletxean ongietorria egiten zaie, eta hori Elgoibarren bakarrik egiten da. Horregatik jarri zioten duela urte asko titulua krosari: *Adeitasunaren krosa*.



*Felix Bergua eta Fermin Arrese Ego-Toki elkarteko kirdeak dira eta krosaren antolatzaile izandakoak.*



• Zorionak, **Oxel**, urtarillaren 2an urtebete egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Ifigo**, astelehenean 11 urte egingo dituzulako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Foke**, zazpi urte egin dituzulako. Familiakoen, eta, bereziki, Sara eta Lolaren partez.



• Zorionak, **Inma**, maitia, hilaren 4an bederatzi urte egin zenituelako. Gurasoen eta etxekoen partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Gares**, bi urte egin dituzulako. Zoragarri pasatu genuen, neskatila! Gabonetan opari pila...



• Zorionak, **Elene**, astelehenean urtetxo bat egingo duzulako. Familiakoen eta berezki, Nahiaren partez.



• Zorionak, **Ainhoa**, urtarillaren 6an hiru urte egin zenituelako. Muxu handi bat Nerea eta gurasoen partez.



• Zorionak, **June! Dagoeneko** lau urte. Ondo pasa eguna Naroa, Paula, Marina eta etxeko partez!



• Zorionak, **Martin**, abenduan urteak egin zenituelako. Muxu handi bat ikastolako lagunen partez.



• Zorionak, **Julen**, abenduan hamar urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak **Felisa eta Flora Etxabel** Lagunen eta senideen partez, muxu bat. Segi horrelako guapak!

LUDOTEKAKO EKINTZAK

**BUELTAN GATOZI!**

GAZTELEKUKO EKINTZAK

**ZEREN ZAIN ZAUDE? ETORRI GAZTELEKURA!**

consultig, s.l.

**g. aroa**

Komunitateen administraritza

Trenbide kalea, 21 zkia.- behea  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 03 02 75 - Fax.: 943 74 82 42  
mjolivares@euskalnet.net

*Utzi albo batera komunitatearen kudeaketak dakartzan zeregin guztiak, eta goza ezazu zerbitzu tekniko-juridiko integralaz.*

Gure eskaintza:

- Batzorde antolaketak.
- Akten idazketa.
- Bilerak eta komunitateko liburura transkripzioa.
- Lehendakariarentzako aholkularitza.
- Kobrantza kudeaketa, izapidetzeak, diru-laguntza tramitazioak,...

*Utzi zure komunitatearen kudeaketa profesionalen eskuetan!!*

**OKINDEGIA**

11 domeka **DOÑA MERCEDES**

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 9 Ibañez
- 10 Garitaonandia
- 11 Garitaonandia
- 12 Etxeberria (Santa Ana)
- 13 Fernandez
- 14 Yudego
- 15 Zabaleta
- 16 Etxeberria (Errosario)

**Ibañez**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

**Fernandez**

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**

Egin klik



[www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)



**9 barixakua**

**Kirola**

**22:00 Pilota**

San Anton txapelketako  
torneoaren finalerdiak.  
Ikastolako frontoian.

**10 zapatua**

**Erakusketak**

**19:00 'Esencia'**

Esmeralda Zapparoliren argazki  
erakusketa ikusteko azken egu-  
na. Kultur Etxean.

**Kirola**

**19:30 Mugerza krosek**

**korrikalariei ongi-etorria**

Mugerza krosean parte hartuko  
dutenei harrera egingo zaie.  
Udaletxean.

**11 domeka**

**Kirola**

**10:00 Mugerza krosa**

Mugerza Nazioarteko krosa  
izango da Mintxetan.

**16 barixakua**

**Antzerkia**

**22:15 'El jefe de todo esto'**

Ados teatroak aurkeztuta, *El jefe de todo esto* antzezlanak  
ikusteko aukera izango da.  
Herriko Antzokian.

**Kirola**

**22:00 Pilota**

San Anton txapelketako finala,  
Ikastolako frontoian.



**Gure gomendioa**

**Mugerza krosa**

Urtarrilak 11, domeka, Mintxetan

Goizeko 10:00etatik aurrera,  
hainbat lasterketa ikusteko  
aukera izango da Mintxetako  
berdegunean. Udalak eta Min-  
txeta Atletismo taldeak antola-  
tuta, munduko korrikalaririk  
onenak izango dira aurten ere,  
Elgoibarren. Ikuskizuna ziurta-  
tuta dago.



**«Los niños de Huang Shi»**

9, barixakua: 22:15  
10, zapatua: 19:00/22:15  
11, domeka: 19:00  
12, astelehena: 21:30

Zuzendaria: Roger Spottiswoode.

Aktoreak: Jonathan Rhys Meyers,  
Radha Mitchell. Iraupena: 114 mi-  
nutu.

Japoniak Txinaren eremu bat inbadi-

tu zuen garaian, kazetari britainiar bat  
Huang Shiko umezurtz etxera joango  
da. Erresistentziako buru baten eta  
erizarin baten laguntzarekin, haurrak  
leku seguru batera eramango dituzte.



**Lanbroa**



**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

**Idama**



Abenduko irabazlea:  
**MAITE AZPIAZU**

Urtarrileko saria:  
**SOLARIUMERAKO  
BONU ETA  
ESFOLIATZEKO  
GEL BANA**

Antonio Arrillaga, 6-8 beheko (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Apal betetzailleak eta kutxazainak

Norentzat: Langabetuentzat  
Hizkuntza: Gaztekeraz  
Hasiera data: 2009-01-26 / Bukaera data: 2009-02-20  
Non: Eibarren  
Izenemate bukaera: Kontsultatu

### Office teknikaria

Norentzat: Langabetuentzat  
Hizkuntza: Gaztekeraz  
Hasiera data: 2009-03-23 / Bukaera data: 2009-06-16  
Non: Eibarren  
Izenemate bukaera: Kontsultatu

### Elikagaiak manipulatzeko ikastaroa

Norentzat: Langabetu, janariekin lan egiten dutenentzat...  
Hizkuntza: Gaztekeraz  
Hasiera data: 2009-03-24 / Bukaera data: 2009-03-31  
Non: Donostian  
Izen emateko: 943 429 003

### Enpresa marketing kudeaketa digitala

Norentzat: Lanbidean alta emanda daudenentzat  
Hizkuntza: Gaztekeraz  
Hasiera data: 2009-01-19 / Bukaera data: 2009-04-03  
Non: Elgoibarren  
Izen emateko: Kontsultatu

### Planoen interpretazioa

Norentzat: Interesatuentzat, ez da ezagupenik behar  
Hizkuntza: Gaztekeraz  
Hasiera data: 2009-01-15  
Non: Elgoibarren  
Izen emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71



### «Bizarzuriren ipuina»

11, domeka: 16:30

Zuzendaria: Juha Wuolijoki.  
Aktoreak: Hannu-Pekka Bjorkman, Otto Gustavsson, Kari Vaananen, Minna Haapkyla, Mikko Leppilampi, Mikko Kouki, Laura

Birn, Antti Tuisku.  
Bizarzuri bihurtzen den ume baten ibilerak azaltzen dira pelikulan. Familia osoak ikusteko moduko pelikula da.

## Gure berbak

### Aditza (37): Aditz trinkuak: ETORRI eta IBILI aditzak

Batetik, ETORRI aditzaren formak jasoko dittugu gaurkuan; bestetik, IBILI aditza aztertzen ere hasiko gara. Hauek dira ETORRI-ren oraiñaldiko formak:

- ♦ Neutrua: *nator, dator, gatoz, zatoz, zatorze, datoz*.
- ♦ Alokutiboa (giz.): *natok, hator, datok, gatuaz, datuaz*.
- ♦ Alokutiboa (emak.): *naton, hator, daton, gatonaz, datonaz*.

Hona ETORRI aditzaren adibide batzuk:

- ♦ *Tallar batera sartu zien aittak eta amak. Gerria jatuan, ba, gerria zatorren, eta tallarrrera sartu nitzan.*
- ♦ *Eta pentsau'ik, haura hil tzala ointxe datuaz hamar urte.*
- ♦ *Badatok aitta, eta salbauta gauaz*

Hauek dira, berriz, lehenaldiko formak:

- ♦ Neutrua: *natorren, zatorren, gentozen, zentozen, zentozten, zatozen*.
- ♦ Alokutiboa (giz.): *natuan, hatorren, jatuan, gatuazen, jatuzen*.
- ♦ Alokutiboa (emak.): *natonan, hatorrenan, jatonan, gatonazen, jatonazen*.

IBILI aditzari dagokionez, hauek dira oraiñaldixan ibiltzen dittugun formak:

- ♦ Neutrua: *nabill, dabill, gabiz, zabiz, zabizte, dabiz*.
- ♦ Alokutiboa (giz.): *nabik, habill, dabik, gabixaz, dabixaz*.
- ♦ Alokutiboa (emak.): *nabin, habill, dabiñ, gabiñaz, dabiñaz*.

Datorren astian jardungo dogu gehixago IBILI aditzaren gaiñian.

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

1977

Aste honetako erretratu Maite Vallejok laga digu. Elizako katekistek antolatzen duten jaiotza biziduneara aterata dago, San Bartolome parrokiaren atarian. San Jose, Ama Birjina eta Jesus haurtxoa ikusten ditugu bertan, eta umea benetakoa da, gainera. Katekistek urte mordo daramatzate errege bezpera egunean jaiotza biziduna antolatzen, eta urtetik urtera elementu gehiago jartzen dituzte. Erregeen kabalgataren aurretik jartzen dira jaiotza biziduneko partehartzaile guztiak parrokia inguruan, eta Meltxor, Gaspar eta Baltasar Jesus haurtxoari euren eskaintza egitera joaten dira. Lan polita egiten dute urtero katekistek.



ESKERTZA

## JUANA BARRENETXEA ELORZA

2008ko abenduaren 11 ean hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



San Anton jaietako

# KOLORETAN MAHAI-JOKO TXAPELKETA

Elgoibarko partxis-tribiala



**Urtarrilak 18, domeka**  
**Goizeko 11:00etan**  
**Kultur Etxeko sotoan**

**Animatu eta eman izena!**

## SARIAK :

1. saria: Txapela eta 500 €
2. saria: 300 €
3. saria: 150 €

- 18 urtetik gorakoentzat
- Bakarka edo bikoteka har daiteke parte

Izena emateko: Ubitarte 4, behea / 943 74 16 26 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)  
(azken eguna: urtarrilak 14)


Antolatzailea:



Babeslea:



Elgoibarko Udala  
Kultura Salla



**“El jefe de todo esto”**

**Urtarrilaren 16an,  
ostirala.**

**22:15ean,**

**Herriko Antzokian.**

**Sarrerak aurrez salgai: Kultur etxean.**



Josean Bengoetxea



Carlos Nguema



Santiago Sueiras



Oscar Terol



Elena Irureta



Koldo Losada



Milla Espiga

**Haurrentzako antzerkia:**

**“TXALO ZIRKUS”**

**Urtarrilaren 18an,  
igandea.**

**16:30ean,**

**Herriko Antzokian.**



Elgoibar Udalak  
Kultura sála



Fonu Aklundia



Euzko Jaurlaritza



SAREA